

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

4865

AGINDUA, 2022ko urriaren 25ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita «Fundación Iura Vasconiae, Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertze Fundazioa / Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autonomico de Vasconia / Fondation pour L'étude du Droit Historique et Autonmique du Pays Basque» izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa.

2022ko urriaren 18an, eskabide bat sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, Fundación Iura Vasconiae, Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertze Fundazioa / Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autonomico de Vasconia / Fondation pour L'étude du Droit Historique et Autonmique du Pays Basque izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko. Fundazioaren patronatuak 2022ko ekainaren 22an erabaki zuen aldaketa, eta eskritura publiko bihurtu zen 2022ko urriaren 4an, Donostian, Fermín Lizarazu Aramayo notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 3.450). Eskabide-idazkiari espedienteko dokumentazioa erantsi zitzaion.

Dokumentazio horren bitartez, honako hauek aldatzen dira: 12. artikulua 6. atala, patronatuaren osaerari buruzkoa; 13. artikulua 1., 7., 8. eta 9. atalak, maiztasunari, bilerak egiteko moduari eta patronatuak erabakiak hartzeari buruzkoak; 14. artikulua c) letra, patronatuaren ahalmenari buruzkoa; 24. artikulua 3. eta 4. atalak, kontuak formulatzeari eta onartzeari eta diru-sarrerak kudeatzeari buruzkoak; 25. artikulua, kontabilitateari eta kontuak emateari buruzkoa; 28. artikulua, bat egiteko aukerari buruzkoa, eta 29. artikulua 1. atala, fundazioaren helburuak gauzatzeko ezintasunaren ondoriozko azkentzeari buruzkoa.

Gainera, gerentea izendatzeko aukerari buruzko 21. artikulua gehitzen da.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau Agindu bidez ebatzea, hauekin bat etorriz: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko irizitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak. Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

2022ko azaroaren 11, ostirala

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Fundación Iura Vasconiae, Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertze Fundazioa / Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autnómico de Vasconia / Fondation pour L'étude du Droit Historique et Autonmique du Pays Basque izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, Agindu honen datarekin, 2022ko urriaren 4an, Donostian, Fermín Lizarazu Aramayo notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan aurreikusitako baldintzetan (protokolo-zenbakia: 3.450).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, ondorioz, honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 25a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.